

ZARAUZKO UDALAREN 2026. URTEKO ARAUGINTZA PLANA

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 132 artikuluan:

“Arau-plangintza.

- 1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege-edo erregelamendu-ekimenak.*
- 2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.”*

Udalak xedapen orokor batzuk aurreikusiko ditu, araugintza onaren printzipioetan oinarrituta. Aurreikuspen horiek udal jardunaren planifikazioa hobetzen dute, gardentasunean sakondu, segurtasun juridikoa areagotu eta herritarren parte-hartzea bultzatu.

Helburu horiek lortzeko asmoz, udal departamentuek egindako proposamenekin bat etorriz, Zarauzko Udalaren Araugintza Plan hau egin da 2026. urterako, honako eduki honekin:

A) ANTOLAKUNTZA ARLOA

A.1. KONTU-HARTZAILETZA

A.1.1. ORDENANTZA FISKALAK (aldaketa)

Justifikazioa:

Udal tributu eta prezio publikoen urteko berrikuspenak eta eguneratzeak egitea, honako gai hauek kontuan izanda:

- Ordenantzak egokitzea, maila goreneko xedapenen aldaketetara edo berrikuntzetara.
- Udal zerga, tasa eta prezio publikoak eguneratzea edo aldatzea, bai kopuruei dagokienez, bai hobari eta salbuespenei dagokienez.

- Diru-sarrereren maila eguneratzea edo aldatzea.
- Prozedura administratiboak eta zerga-kudeaketa arrazionalizatzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Udalaren nahikotasun finantzarioaren printzipioa indartu eta mantentzea, Udalak bultzatu edota ekidin nahi dituen egintzak eta helburuak kontuan hartuta.

A.1.2. TOKIKO TRIBUTUEN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUEN KUDEAKETA ETA IKUSKAPENA ARAUTZEKO ORDENANTZA OROKORRA (BERRIA)

Justifikazioa:

Ordenantzaren xedea da:

- Tokiko tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa hobetu eta erraztuko duten prozedurazko hainbat gai arautzea.
- Hainbat ordenantza fiskaletan komunak diren gaiak arautzea, ez errepikatzeke.
- Udalak zehaztu edo garatu beharreko gaiak arautzea.
- Herritarrak informatzea indarrean dauden arau eta prozedurez eta beren eskubide eta bermeez. Informazio hori interes orokorrekoa da, eta behar-beharrezkoa zerga-obligazioak ondo betetzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Kudeaketa arrazionalizatzea eta prozedurak zehaztu eta garatzea, betiere maila goreneko xedapenak errespetatuz; eta, bide batez, herritarrei indarrean dauden arauen eta prozeduren berri ematea.

A.2. IDAZKARITZA

A.2.1. ZARAUZKO UDAL ARTXIBOAREN ARAUDIA

Justifikazioa:

Zarauzko Udal Artxiboak oraindaino ez du izan bere barne funtzionamendua arautzeko araudirik, eta guztiz beharrezkoa da. Araudi horren barnean honako gai hauek sartzen dira: udal dokumentazio-ondarearen kudeaketa eta tratamendua, zerbitzua erabiltzeko baldintzak, kontserbazioa eta hedapena.

Udal Artxiboak Udalean sortutako eta jasotako dokumentazioa kontserbatu eta horren berri ematen du. Horretaz gain, funtsezko informazio-iturria da udalerraren eta lurraldearen ikerketa historikorako. Zarauzko Udal Artxiboak dokumentuak jaso, zaindu eta hedatzen ditu. Dokumentu horiek lekuko materialak dira, alegia, historian zehar udal instituzioaren memoria iraunkorra osatuko duten testigantzak.

Bestalde, legediak hiritarrei informazioa jasotzeko eskubidea ematen dienez, Udal Artxiboa zerbitzu publiko bat ere bada, eta Udalak zerbitzu hori ziurtatu behar du.

Araudiaren helburua da, alde batetik, udal ondare dokumentalaren izaera kuantitatibo eta kualitatiboa mugatzea, eta ondare horren zaintza, batasuna, defentsa eta eskuragarritasuna bermatzea. Eta bestetik, udal funtzio administratiboaren ikuspegitik, helburua da haren funtzionamendua ona eta arina izatea, eta eguneroko jarduerak sortzen dituen beharrei erantzutea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Funtzio horiek guztiak beteko dituen artxiboaren funtzionamendua arautzea, eta udal departamentuek, horietako langileek eta gainerako erabiltzaileek araudia argi izatea.

A.3. GIZA BALIABIDEAK

A.3.1. TELELANAREN ARAUDIA

Justifikazioa:

- Telelanaren araudia estatuko, autonomia-erkidegoko eta toki-mailako arau berrietara egokitzea.

- Lanaren antolaketa eta zerbitzuen kudeaketa hobetzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.
- Enplegatu publikoen lana eta bizitza pertsonala uztartzea.
- Produktibitatea, eraginkortasuna eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzea, baliabideen erabilera arrazionalizatuz.

Ekimenaren helburu nagusia:

Teelana Udal Administrazioiko lan-modalitate gisa arautu eta eguneratzea, gaur egungo teknologia-, antolamendu- eta arau-testuinguruari erantzuteko.

A.3.2. LAN-POLTSAK KUDEATZEKO ARAUDIA

Justifikazioa:

Aldi baterako lan-poltsen kudeaketa arautu eta irizpideak eguneratzea, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipio konstituzional eta legalekin bat etorritz, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak bermatzea aldi baterako hautaketa eta izendapen prozeduretan.
- Gardentasuna, objektibotasuna eta inpartzialtasuna indartzea hautaketa-prozesuen kudeaketan.
- Aldi baterako izendapenen kudeaketan beharrezkoa den bizkortasuna eta eraginkortasuna bermatzea.
- Indarrean dauden irizpideak egungo beharretara egokitzea, zaharkituta geratu direlako.

Ekimenaren helburu nagusia:

Zarauzko Udalaren aldi baterako lan-poltsen kudeaketa-sistema argi, eguneratu eta eraginkor bat ezartzea, enplegu publikorako sarbidean berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta gardentasuna bermatzeko eta aldi baterako langileen hautaketa eta izendapena modu arin eta objektiboan egiteko.

A.3.3. ZARAUZKO UDALTZAINGOAREN BARNE-ARAUDIA

Justifikazioa:

Zarauzko Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Barne Araudia ezartzea, Euskadiko Udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak garatzeko, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiarekin bat datorren arau-esparru argi eta bateratua ezartzea.
- Udaltzaingoaren antolamendua, egitura eta funtzioak zehaztea, jardunaren eraginkortasuna bermatzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Zarauzko Udaltzaingoaren jarduera eta barne-antolaketa arautzen duen esparru juridiko eguneratu eta integrala ezartzea, haren funtzionamendu eraginkorra, koordinatua eta gardena bermatzeko eta herritarren segurtasunaren, trafikoaren eta ingurumen-babesaren arloko udal zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

A.3.4. ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN ARAUDIA (aldatzea)

Justifikazioa:

Zarauzko Udaleko enplegatu publikoen ordainsarien araudia eguneratzea, lanpostuen balorazioa giza baliabideen kudeaketarako funtsezko tresna gisa erabiliz, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Lanpostu bakoitzaren garrantzia eta balioa modu objektibo eta homogeneousan zehaztea, udal antolamenduko gainerako lanpostuekin alderatuta.
- Lanpostuen edukian gertatzen diren aldaketa berezi edo salbuespenezkoei erantzutea, antolaketa- eta egitura-beharretara egokituz.
- Lanpostuen sailkapen egokia bermatzea, ordainsari-sistemaren koherentzia eta barne-oreka ziurtatzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Zarauzko Udaleko lanpostuen balorazioan oinarritutako ordainsari-sistema justu, objektibo eta eguneratua ezartzea, enplegatu publikoen arteko barne-berdintasuna eta ordainsarien koherentzia bermatzeko eta giza baliabideen udal antolaketa eta kudeaketa eraginkorra indartzeko.

A.3.5. BIGARREN JARDUERAKO LANPOSTUEN ATXIKIPENA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

Bigarren jarduerako lanpostuen atxikipena arautzen duen araudia eguneratzea, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Erakundeak erabili dezala bigarren jarduerako lanpostuetara atxikitze mekanismoak arautzeko eman zaion ahalmena.
- Erantzun egokia ematea adinagatik edo beste arrazoi batzuegatik ahalmen psikikoa edo fisikoa murriztu zaien langileen egoerari.
- Segurtasun juridikoa eta irizpide objektiboak bermatzea bigarren jarduerara atxikitze prozeduretan.

Ekimenaren helburu nagusia:

Zarauzko Udaleko enplegatu publikoen ahalmen psiko-fisiko egokia bermatzen duen arau-esparru argia eta eguneratua ezartzea, langileak babesteko eta bigarren jarduerako lanpostuen bidez lanean jarraitzeko eta aldi berean udal zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea bermatzeko.

B) HERRITARREN ARLOA

B.1. KIROLA

B.1.1. UDAL KIROL INSTALAZIOETAKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARAUDIA

Justifikazioa:

Zarauzko Udalak ez dauka udal kirol instalazioetako jarduera fisikoaren eta kirolaren praktika eta garapena arautzen duen araudirik. Bestek beste, honako atal hauek garatu eta arautu behar dira:

- Kirol Departamentua: orokortasunak, zerbitzuak eta beste.
- Erabiltzaileak: eskubideak, betebeharrak, erantzukizunak eta beste.
- Kirol instalazioak: ezaugarriak, erabilera-jarraibideak eta beste.
- Antolaketa-jarraibideak eta prozedurak.
- Zigor-araubidea, diziplina-prozedurak.

Gai horiek arautzeko oinarriak:

- 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- Indarrean dauden beste araudi batzuk.
- Zarauzko jarduera fisikoaren zein kirolaren errealitatea.
- Zarauzko Udaleko beste zehar-lerro batzuk: berdintasuna, hizkuntza, ingurumena, etab.

Ekimenaren helburu nagusia:

Egungo araudietara, kirol politikara, errealitatera eta erabiltzaile motara egokitzea Zarauzko Kirol Departamentuko araudia.

B.2. UDALTZAINGOA ETA MUGIKORTASUNA

B.2.1 ZIGORTZEKO AHALMENA ERABILTZEKO PROZEDURA LABURTUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa

Ordenantza honen xedea da Zarauzko Udalak zigortzeko duen ahalmenaren erabilera arautzea; alegia, prozedura laburtu bat jartzea arau-hauste arin gisa tipifikatuta dauden ez-betetzeen tramitazioan polizia-zeregina errazagoa izateko. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren arabera, Udalak dauka zigortzeko ahalmena.

Zigor-prozedura honako hauek arautzen dute: (i) urriaren 15eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak eta (ii) martxoaren 16ko 1/2023 Legea, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa. Hori horrela, ordenantza eguneratu egin behar da, berritutako legeek xedatzen dutena bertan sartzeko.

Ekimenaren helburu nagusia

Ordenantzak xedatzen duen guztia gaur egun indarrean dagoen legedira egokitzea.

B.2.2 TRAFIKOARI, ZIRKULAZIOARI, APARKALEKUEI ETA MUGIKORTASUNARI BURUZKO ORDENANTZEN ALDAKETA (bateratzea)

Justifikazioa:

Zenbait udal ordenantzek ibilgailuen trafikoa, zirkulazioa, aparkalekuak, oinezkoen mugikortasuna eta bide publikoen erabilera modu sakabanatuan arautzen dituzte, eta horietako batzuek eduki zaharrak izan ditzakete, bide-segurtasunari eta mugikortasunari buruz Estatuan eta autonomia-erkidegoan onartutako araudi berriekin bat ez datozenak; hala nola,

- OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA
- ZARAUZKO HIRI-BIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA (EGUNERAKETA HASIERAZ ONARTUA)
- ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA

Horrek dispersioa eta ordenantzen zaharkitzea ekarri du, kontuan hartuta indarrean dagoen araudi erregulatzailerak aipatutako ordenantza horiek onartu ondoren aldatu edo sortu dela:

- 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 11/2023 Legea, azaroaren 9koa, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriarena.
- 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onartzen duena (130 art. aldatua), eta 159/2021 Errege Dekretua,

martxoaren 16koa, Bide Publikoetako Laguntza Zerbitzuak arautzen dituen (nahitaezkoa 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera).

- Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 12koa, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen ezaugarri teknikoen eskuliburua argitaratzen duena (BOE-A-2022-987) eta 16/V-124 DGT jarraibidea.
- Emisio gutxiko eremuak (BEE), aparkaleku arautuak (SER) eta ingurumen-etiketak.

Testu bategin bakarrean trafikoari, zirkulazioari, aparkalekuei eta mugikortasunari buruz indarrean dauden xedapen guztiak bateratzeak eta eduki zaharkituak egungo araudira egokitzeak argitasun handiagoa ekarriko die herritarrei eta administrazioari: arauen ezagutza erraztuko da, eraginkortasun administratiboa hobetu, eta herritarren segurtasun juridikoa eta administrazioaren jarduna bermatu.

Ekimenaren helburu nagusia:

Testu bateginak ordenantza bakar batean bilduko ditu trafikoaren, zirkulazioaren, aparkalekuen eta mugikortasunaren arloan indarrean dauden xedapen guztiak, eta dokumentu koherente bakarra sortuko du gaien arabera, beharrezko egokitzapen puntualak eginez araudi hierarkikoarekin bateragarria izan dadin, baina oinarrian dagoen erregulazio-espiritua aldatu gabe.

C) LURRALDE ARLOA

C.1. HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

C.1.1. ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

Arlo honetan egon diren araudi aldaketak direla-eta (besteak beste, ekainaren 30eko 9/2022 Legea, Etxeko Animaliak babesteari buruzkoa, eta martxoaren 28ko 7/2023 Legea, animalien eskubideak eta ongizatea babestekoa) Udalak 2006. urtean onartutako ordenantza erabat zaharkituta geratu da eta berritu behar da.

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza araudi-aldaketetara eguneratzea eta garai berrietara egokitzea. Aztertuko da soluzio egokiena zein den: lehengo ordenantza aldatzea edota hura indargabetu eta berri bat onartzea.

C.1.2. ZARAUZKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

Indarrean dagoen ordenantza 2008an onartu zen, higiezinaren burbuilaren garaian. Geroztik, hainbat lege eta arau onartu dira, eta horiek eragina izan dute etxebizitza babestuen erregimenean: Etxebizitzaren 3/2015 Lege autonomikoa, eta bereziki, 2022ko ekainaren 30eko Agindua, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak arautzen duena; horiekin batera aipagarria da baita ere, Estatuko 12/2023 Legea, etxebizitza eskubidea arautzen duena.

Ordenantza egokitu egin behar da gerora sortutako indarreko araudira. Ekimena martxan jarri baino lehen, Zarauzko etxebizitzaren egoeraren inguruko prozesu partehartzaile bat abiatzea aurreikusia zegoen. Prozesua 2025eko udaberrian garatu da eta bere ondorioak oinarria izango dira Ordenantzaren berrikuntzarako.

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza araudi berrira egokitzea, eta, bereziki, udal etxebizitza tasatuen gehieneko prezioak etxebizitza tasatu autonomikoekin parekatzea, horiek baino altuagoak ez izateko.

C.1.3. LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO ORDENANTZAK (aldaketa)

Justifikazioa:

Indarrean dagoen ordenantza 2010ean onartu zen. Geroztik, goiko epigrafeko arau-aldaketez gain, hau onartu da erkidegoan: 80/2022 Dekretua, EAEn etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak



arautzen dituen. Dekretu hori 2023an sartu da indarrean, eta hainbat kontutan talka egiten du udal-ordenantzan jasotako bizigarritasun-baldintza teknikoekin. Bestalde, Etxebizitza Sailak iragarri du lokalak etxebizitza bihurtzea berariaz arautuko duela premiazko neurrien Dekretu batean.

Ordenantza egokitu egin behar da gerora sortutako indarreko araudira. Zarauzko etxebizitzaren egoerari buruzko azterlanari loturiko prozesu partehartzaile bat martxan jarri da 2025eko udaberrian eta bere ondorioak oinarria izango dira Ordenantzaren berrikuspenean.

Ekimenaren helburu nagusia:

Goian aipatutakoaz gain, udal-ordenantzan jasotako bizigarritasun-baldintza teknikoak aztertu eta berrikusiko dira, Erkidegoko 80/2022 Dekretuarekin dauden kontraesanak ekiditeko eta prozesu parte-hartzaileko ondorioak txertatzeko.